

gaz-teak



Doako alea

313 Zb.
www.getxo.eus

>> 2017ko maiatza

Nabarmen^{tzekoak}

- > Haurren parke inklusiboak
- > Izen-ematea zabalik herriko udalekuetarako
- > III. Book Trailer lehiaketako sari banaketa



Haurren parke inklusiboak

Udalak haurren inklusioaren aldeko apustua egin du, 2008az geroztik gure haurren parkeetan zabu irisgarriak nahiz inklusiboak jarri. Jolastea haurtzaroko eskubidea da, eta garapenari mesede egiten dio oso modu positiboan, bai alde psikomotorrari, bai emozionalari dagokionez, pertsona guztien aurrerapena eta hazkuntza hobetzen baitu. Horri guztiari beste ume batzuen konpainia gehitzen bazaio, ondorioa da gaitasun sozialak modu ludiko eta dibertigarrian estimulatzea.

Beti ohartzen ez bagara ere, gure parkeetako zabu asko pertsona askoren pentsatuz egin dira, bereziki arrazoren bat bide irisgarritasun-oztopo handiagoak dituztenengan. Besteak beste, mugikortasun urria, itsutasuna zein egonkortasun-arazoak dauzkaten pertsonentzako zabu irisgarriak dira, eta ume horiek lehentasuna izango dute gainerako haurren gainetik. Guztiak berdintasun-baldintzetan gozatzeko espazioak dira; elementu integratzaile gisa dihardute eta beste umeen kontzientziazioa bultzatzen dute jolasaren bitartez.

III. Book Trailer lehiaketako sari banaketa

Datorren maiatzaren 13an Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan Getxoko III. Book Trailer lehiaketako sari banaketa ospatuko da, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Saioa Ane Guria raperak gidatuko du eta epaileak Nora Aurrekoetxea artista, Beñat Vidal bertsolaria eta Iñigo Iraultza aktorea izango dira. Parte hartu duten gazteen artean sari desberdinak banatuko dira, hau da, kategoria bakoitzeko lehen eta bigarren saria (tablet bana eta Gobelaurre liburudendan erosteko 50€ko bono bana, hurrenez hurren) eta publikoaren saria (abentura kamera bana).

Lehiaketa Getxoko Gazteria Zerbitzuak, Euskara Sailak eta Udal Liburutegiek antolatu dute, Kalabazan Kultur Ekimenak elkar-tearekin elkarlanean. Urtarrilaren amaieran jarri zen martxan lehiaketa eta aurreko astean amaitu zen. Epe horretan Getxoko hainbat eskolatan eta Gauegun Gaztelekuak Book Trailerra zelan egin ikasteko tailerrak eskaini ziren. Lehiaketaren helburua da gazteen artean irakurzaletasuna euskaraz sustatzea, eta baita sormenaren bidez euren interesak eta kezak islatzeko espazioa eskaintzea ere. Aurreko bi edizioetan parte-hartze handia izan zen, edizio bakoitzean 90 bat gaztek egindako 30 bideo inguru aurkeztu baitziren.

Gaztelekuaren programazioa

Maiatza

Hilak 5, ostirala: EKINTZA: MUSICAL.Y

Hilak 11, osteguna: TOPAKETA

Hilak 13, larunbata: MASTERCHEF LUDOTEKAREKIN: CUPCAKES

Hilak 18, osteguna: MASTERCHEF: TRUFAK

Hilak 19, ostirala, eta 21, igandea: KULTURARTEKOTASUNAREN HILABETEA

Hilak 24, asteazkena: ESKULANA: MUGIKORRENTZAKO FUNDAK

Hilak 27, larunbata: IRTEERA: UDAKO JAI (GALDAKAON)


Izen-ematea zabalik herriko udalekuetarako

Gazteria Zerbitzuak 5 eta 12 urte bitarteko gazteentzat antolatutako herriko udalekuetan izena emateko epea zabalik egongo da maiatzaren 8tik 19ra bitartean, Geroa Ikastolan eta San Ignazio eta Romo ikastetxeetan.

Udalekuak uztailan izango dira, bi asteko txandetan banatuta. Lehenengo txandaren iraupena 10 eguneko izango da, eta bigarrenarena 9koa, uztailaren 25ean jai eguna izango baita. Txanda bakoitzeko lau egunetan txangoak egingo dira, eta egun horietako ordutegia 9:00etatik 17:30era izango da. Gainerakoetan 9:00etatik 14:00etara. Behar bereziak dituzten umeek beharrezko laguntzak izango dituzte.

Izen-emaeta on-line www.getxo.eus/gazteria helbidean, Herritarren Arretarako Bulegoetan eta Gazte Informazio Bulegoan egin daiteke. Eskaera kopuruak plaza kopurua gaindituko balu zozketa egingo litzateke eta horren emaitza maiatzaren 25ean ezagutaraziko da.

Informazioa: www.getxo.net/gazteria eta Gazte Informazio Bulegoan (Tangora etxea, Algortako etorb. 98, 944660353).



Udako Aisialdirako Ekitaldiak

	Ekintza	Datak	Adina	Prezioa	Hizkuntza	Izena emateko epea	Informazioa
GAZTERIA	Hiriko Udalekuak	1.TXANDA: Uztailaren 3tik 14ra 2.TXANDA: Uztailaren 17tik 28ra	2005-2012	Prezio arrunta 118€ Prezio murriztua 53€ Deskontuak daude Familia ugariarentzat	Euskara	Maiatzaren 8tik 19ra	www.getxo.eus/gazteria Herritarren Arretarako Bulegoetan 944660353
KUKUPRAKA LUDOTEKA	Udako programa	Ekainak 26- Irailak 1 Astekako 10 txanda	2011-2005	DOAN	Euskara	Maiatzaren 8-19 (biak barne)	areetakoludoteka@getxo.eus Eskoletako Enparantza (Areetan) 944660355
GAUEGUN GAZTELEKUA	Ekintza Anitzak	Ekaina eta Uztaila	11-17	Dohainik	Euskara eta gaztelania	Ez da beharrezkoa	www.getxo.eus 944660353
GETXO KIROLAK	Jolasketan	Uztaila eta Abuztua	2011-2013	90 €	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 24tik maiatzaren 10era	getxokirolak.getxo.eus 944308070 944045151
	Udajolasean		2008-2010	90 €	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 24tik maiatzaren 10era	
	Kirolet@n		2003-2007	90€	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 24tik maiatzaren 10era	
	Grand slam		2001-2009	90 €	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 24tik maiatzaren 10era	
	Igeriketa		4-15 urte	26,50 €	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 24tik maiatzaren 10era	
	Padela		1992-2003	37,40 €	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 24tik maiatzaren 10era	
Tenisa	2003tik aurrera	37,40 €	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 24tik maiatzaren 10era			
MUSIKA ESKOLA	Udapasa Artistikoak	Uztailaren 3tik 14ra	4-12	130 €	Euskara eta Gaztelania	Maiatzaren 16tik 31ra arte	Andrés Isasi Musika Eskola Areetako zein Algortako egoitzan
UDAL EUSKALTEGIA	Ikastaro Trinkoak	Ekainaren 30etik uztailaren 21era Irailaren 4tik 29ra	16 urtetik gora	kontsultatu	Euskara	Ekainaren 1etik 23ra Ekainaren 1etik uztailaren 14ra	euskaltegi@getxo.eus 944646299
UDAL LIBURUTEGIAK	Letren Terrazak	Uztailaren 3tik 28ra Abuztuaren 2tik 31ra	Adin guztiak	DOAN	Euskara eta Gaztelaniaz	Ez da beharrezkoa	www.getxo.eus/liburutegiak 944319281
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	UdaTIK	Uztailaren 5etik 15era	9-14	DOAN	Euskara eta Ingelesa	Apirilak 20tik-ekainak 16ra	http://www.biscaytik.eus/udatik/bizkaia.eu
ALAISE	Udalekuak (Gobela Ikastolan)	Uztailaren 3tik 14ra Uztailaren 17tik 28ra	3 -12 urte	135 hamabostaldia 65 euro astea 15 euro egun solte	Euskara eta Gaztelania	Ekainaren 26a arte	info.alaise@gmail.com 629014877
BIZARRA LEPOAN	BAPIRUIKE Udaleku Irekiak	Ekainaren 26tik 30era Uztailaren 3tik 14ra Uztailaren 17tik 28ra (egunero 9:00-13:30) (astean bitan irteera 9:00-17:00)	5-12	Kontsultatu	Euskara	Bazkideak: Maiatzak 15-16 Ez bazkideak: Maiatzak 17-18	www.bizarralepoan.eus 944910387
CLUB HÍPICO LA GALEA	Udalekuak Hipika +ingeleza	Ekainaren 26tik uztailaren 28ra Irailaren 4tik 8ra	4-16	Egun osoa/astea 350€ Egun erdia/astea 260€	Euskara, Ingelesa eta Gaztelania	Zabalik	info@hipicalagalea.com 944603266
	Ikastaro Trinkoak	Ekainaren 26tik uztailaren 28ra	Umeak eta Nagusiak	60 eurotik 8 egun	Euskara eta Gaztelania	Ekainak 15etik aurrera	info@hipicalagalea.com 944603266
ESKUBELTZ ESKAUT TALDEA	Kanpamentua	Uztailaren 17tik 29ra arte	8-18	120-130 €	Euskara eta gaztelania	Maiatzan	iranzueskubeltz@gmail.com 670827374
IKASTOLEN ELKARTEA	UDALEKU IREKIAK	Ekainaren 26tik aurrera	3-8 Urte	Ikastolan galdetu	Euskara	Ikastolan galdetu	www.aisialdia.eus 94336937
	Campus Multikiroletan	Ekainaren 26tik Uztailaren 28ra	3-13 urte	25-335 €	Euskara eta Gaztelania	Ekainaren 16a arte	www.kiroletansport.com Informazioa: 94 608 59 33
KIROLETAN SPORT	Campus Saski Getxo %100 Basket	Ekainaren 26tik Uztailaren 28ra	3 -13 urte	30- 345 €	Euskara eta Gaztelania	Ekainaren 16a arte	www.kiroletansport.com Informazioa: 94 608 59 33
	URIBE COSTA. ASOCIACIÓN EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD	Ekintza anitzak	Abuztuak 1-10	Adin guztiak	Ekintzaren arabera	Gaztelaniaz	Ekaina
Udako oporrak		Uztailak 3-14 Uztailak 17-28	12-30	Ekintzaren arabera	Gaztelaniaz	Ekaina	ocio@uribecosta.org 94 4632452
Udako oporrak		Abuztuaren 16-30	Adi guztiak	Ekintzaren arabera	Gaztelaniaz	Ekaina	ocio@uribecosta.org 94 4632452
UTOPIAN	Udako Campusa	Uztaila	5-10	110 euro	Euskara eta Gaztelania	Maiatzetik Ekainaren 28ra	utopiangetxo@gmail.com 94 4303194
AEK EUSKALTEGIA	Ikastaro Trinkoak URIBE KOSTAKO AEK	Ekainaren 1etik 30era Uztailaren 3tik 28ra Abuztuaren 1etik 30era Irailaren 4tik 29ra	16 Urtetik gorako	100 ordu 169€ 95 ordu 161€	Euskaraz		lauxeta@aeq.org 94 4304734
UZTARRI	Bizi Zaituz Euskaraz	Uztailaren 3tik 15era, 17tik 29ra	8-12 13-15	625€	Euskaraz	Maiatzaren 2tik-ekainaren 23ra	www.uztari.eus 94 4249930

UDAKO AISIALDIRAKO EKITALDI ESKAITZARI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGO: GAZTE BULEGOA (ALGORTAKO ETORBIDEA, 98).
TEL.: 944660353. EPOSTA: gaztebulegoa@getxo.eus